

Gipuzkoako

Programa

ehildu

ehbildu

Aurkibidea

1. Ekonomiaren sustapena	3
2. Gizarte politikak	7
3. Energia trantsizioa	9
4. Mugikortasuna	11
5. Zerga politika	13

GIPUZKOAK POTENTETZIALITATE NAHIKOA DU HERRIALDE GUZTIRA ABERASTASUNAREN SORRERA ETA BANAKETA JUSTUA EGIN AHAL IZATEKO

Gipuzkoa herrialde industrialia izan da historikoki, eta horrek herrialdearen beraren garapena eta kalitatezko enpleguaren sorrera ekarri du. Halere, azken urteotan beheranzko tendentzia kezkarria da: Industriak egun BPGaren %27,6koa da (2022ko datua), 2008an %32,4koa zen bitartean. Europako herrialde arreatuenen datuetatik urrun, esaterako Norvegia %33,6a den bitartean.

Enpleguan ere beherakada nabarmena da: soilik herritarren %20,6k dihardu egun industrian, Europako herrialde aurreratuenen datuetatik urrun, Alemanian, kasu, %24,2koa baita.

EUSTATen datuen arabera, 2009tik 2019ra 14.136 lanpostu gutxiago ditugula industria arloan, eta tendentzia okerrera doa.

I+G+i izan da Gipuzkoaren marka esanguratsuenetakoa, herrialdea osatzen duten profesional eta ehungintza kolektibo garrantzitsu batek sustatuta. Gipuzkoak BPGaren %2,4a inbertitzen du, erabat estankatuta dagoen inbertsioa, Europako herrialde aurreratuetatik urrun, Alemaniako Baviera lander-aren kasuan %3,2a da, eta urterik urte inbertsioa goranzko joeran doa bertan (Orkestrak 2021ean kaleratutako txostenean azaltzen denari jarraiki).

Jarduera ekonomikoetarako lurzorua birgaitzea eta berronratzea proposatzen dugu, gaur egun, Gipuzkoan erabiltzen ez diren 48.000.000m² lurzoru berreskuratu eta industriarentzat erabilgarri bihurtuz.

Anbizio handiko industria plana behar dugu, industria berdearen aldeko apustua oinarri izango duena, Europako Batzordeak proposatzen duenaren ildotik.

Enpresa txiki eta ertainek ere osatzen dute Gipuzkoako ekosistema enpresariala. Energia prezioen igoera beldurgarriaren aurrean, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei zuzeneko laguntzak proposatzen ditugu, epe motzeko neurri gisa, pairatzen ari diren egoerari aurre egiteko helburu moduan. Epe ertain eta luzera begirakoan, aldiz, eta krisi klimatikoari aurre egiteko determinazio osoz, horiei trantsizio ekologiko, energetiko, digital eta antolaketarako laguntzak ematea ezinbestekoa da, eskualdeetako garapen agentzien lidergoa azpimarratuz.

Ildo honetan, 4.0 Industriak dituen potentzialitate guztiak baliatu behar ditu Gipuzkoak, eta hortaz, enpresa txiki, ertain eta autonomoek laguntza zuzen gehiago behar dituzte erronka erraldoi horri aurre egiteko.

Ezinbestekoa da sektore estrategikoen inguruko hausnarketa egitea. Atzerriko kapitalaren inbertsio neurrigabe eta erasokorra jasan dezaketen enpresen akzioak eta partaidetzak eskuratzea izango da lan lerroa.

Parke teknologikoen sarearen zabalpena klabea da ehungintza enpresarial eta teknologikoan. Horretan, Aldundia aktore klabea da eta, eskumenak eskumen, inplikazioa handiagoa izan behar du, parke teknologikoen mapa eguneratu eta garapen agentzia, ezagutza-zentro eta enpresa traktoreekin elkarlanarekin batera, bultzada berri bat emate aldera. Besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak lidergoa hartu beharko luke Galaterrako parke teknologikoa osatu eta ikerketan eta garapenean oinarritutako enpresak ezartzeko apustua egin dadin. Halaber, Inbertsio politika publiko berri bat behar du Bidaso eskualdeak eta Aldunditik konpromisoa hartzen dugu

ehbildu

eskualdeko demanda historikoa izan dena, Zubietako Parke teknologikoa behingoz martxan jartzearena, lideratu eta Eusko Jaurlaritzari behingoagatik proiektua abiatu dezala eskatuz.

EH Bilduk apustu garbia egiten du eskualdez eskualdeko garapenaren alde, tokiko garapena eta endogenoa bultzatuz, eta horretarako berebiziko agenteak dira garapen agentziak. Aurrera begirako hausnarketa estrategikoa egitea ezinbestekoa da, garapen agentziek protagonismoa irabazi eta duten potentzialitatea behar bezala erabil dezaten, beraiek baitira eskualdez eskualde ditugun beharrak hobekien ezagutzen dutenak.

Garapen Agentziek parer garrantzitsua joka dezakete eskualdeko lehiakortasun estrategiak definitzen eta bertan garatu daitezkeen ekimenak zehazten. Enpresaren egungo egoera aztertuz, gabezi eta indarguneak diagnostikatuz, epe motz eta ertainerako erronkak identifikatuz eta laguntza-programen eta intereseko gaien inguruko orientazioa emanez aritzen dira egunerokoan Garapen Agentziak. Etorkizunean pentsatzeak, Orainean jardutea eskatzen du eta ezinbestekoa da:

1. Enpresen berrikuntza teknologikoa areagotzea eta indartzea baina baita ere sarean, partaidetzaren eta eraldaketaren aldeko apostua egitea.
2. Eskualde bakoitzean suspertzen diren sektoreen espezializazio indarra jarri beharko litzateke, eskualde guztiek ez baitute egoera bera.
3. Pertsonen trebakuntza eta gaitasun transbertsal hobeak izan ditzaten sustatzea lan merkatuaren premiei erantzunez.
4. Industria lurzorua lehengoratzeko (kasu batzuetan berria sortu aurretik), mantentzea eta optimizatzea.
5. Balio erantsi handiko ekintzailatza eta intraekintzailatza erakartzea eta sortzea, eta gizarte ekonomiako moldeak bereziki sustatzea.
6. Laneratze eta gizarteratze politikei bultzada ematea; bazterketa jasateko arriskua duten taldeekin lan egin behar dugu.
7. Partaidetzan, erantzunkidetasun eta egonkortasunean oinarritutako gobernantza ereduak eraiki behar dira eskualdeen lehiakortasuna garatzeko.

Estrategikoak diren eremuetan akordioak lantzeko prest egon da azken lau urteotan Gipuzkoako EH Bildu:

Aldundiak proaktiboa izan behar du Gipuzkoako enpresen errota bermatzeko, eta herrialde honek adostasun zabala behar du aktibitate ekonomiko estrategikoen mapa osatu eta atzerriko kapitalaren inbertsio neurrigabe eta erasokorra jasan dezaketen enpresen akzioak eta partaidetzak eskuratzeko asmoz. (3.5M€ gehiago proposatu genituen).

Apustu garbia egiten dugu eskualdez eskualdeko garapenaren alde, tokiko garapena eta endogenoa bultzatuz, eta horretarako berebiziko agenteak dira garapen agentziak. Aurrera begirako hausnarketa estrategikoa egitea luzatzen diogu Aldundiari, garapen agentziek protagonismoa irabazi eta duten potentzialitatea behar bezala erabil dezaten, beraiek baitira eskualdez eskualde ditugun beharrak hobekien ezagutzen dutenak, udalekin batera.

ehbildu

Ildo horretan, eta epe laburreko neurri moduan, 5.000.000€ gehiago proposatzen ditugu Gipuzkoako garapen agentziak indartu ahal izateko eta tokian tokiko proiektu sozioekonomikoak gauzatu eta udalekin batera partekatzeko.

Garapen agentziek protagonismo txikia izan dute legegintzaldi honetan, eta gobernantza eredu berria eskatu dute, Aldundiak martxan jarritako proiektuen diseinuan parte-hartze handiagoa.

Enpresa txiki eta ertainek bultzada berezia behar dute trantsizio digitalean salto bat eman dezaten. Horretarako, “Eraldaketa Digitalerako bulegoa” sortzea proposatzen dugu, lehen mailako arreta teknologikoa eskainiko dien gunea izango da. Halaber, “Gipuzkoa 4.0 estrategia” indartzea proposatzen dugu, oso ahula baita 2023rako Aldundiak martxan duena (250.000€ soilik) eta Gipuzkoak duen ehungintza industrial aberatsa kontuan izanda, ez da nahikoa.

Gipuzkoak potentzialitate handia du jauzi kualitatiboa eman eta Europako herrialde aurreratuenen pare jarrita, I+G+I politketan. (Goiko datuak begiratu). EH Bilduk 14.000.000€ko partidak proposatzen ditu (Aldundiak 9.000.000€ eskas proposatzen ditu). Zehazki, I+G+I produktuak garatzeko, aplikazio praktikoetarako, 800.000€ gehiago proposatzen ditugu eta Zientzia sarea indartu eta teknologia eta berrikuntza azpiegiturak laguntzeko programak indartu eta 1.500.000€ handitzea proposatzen dugu, besteak beste.

Enpresen etorkizuna gaurdanik bermatu ahal izateko ezinbestekoa da egungo egoerari aurre egiteko laguntza zuzenak indartzea, batez ere enpresa txiki eta ertainen egoerari arreta berezia jarritz. Horregatik, energia krisiari aurre egiteko 2.000.000€ko partida berezitua sortzea proposatzen dugu, zuzenena enpresa txiki, ertain eta autonomoei laguntzeko.

Ekonomia sektorea etorkizunerako prestatu behar da, datozen trantsizio ekologiko eta digitalak bidezkoak izan daitezen eta lanpostuak gal ez daitezen. Horretarako, 5.000.000€ inguruko partidak proposatzen ditugu, aurrean dugun klima aldaketak tamainako eraldaketak eskatzen baititu (Aldundiaren proposamena orotara ez da 1.000.000€ iristen).

Enpresa txiki eta ertainei laguntzak handitzea proposatzen dugu, nazioartekotze prozesuan eta merkatu berrietara zabaltzeko laguntzak, orotara 510.000€ko partidak (Aldundiak 160.000€ko partidak proposatzen ditu).

GFAk bere esku dauden neurriak hartu behar ditu gipuzkoarren ongizatea bermatzeko. Bere esku dauden enpresa eta zerbitzuetan. Kontuan izan behar dugu jarduera ekonomiko osoaren zati handi batean duela eragina kontratazio publikoak, eta egun bizi eta pairatzen dugun prezioen igoera neurrigabearen aurrean, neurri zehatzak hartzea dagokigu. Ildo horretan, eta bestelako klausula sozialekin batera, Aldundiak egiten dituen kontratazio publikoetan zerbitzua ematen duten enpresetako langileek gutxieneko soldata 1.400€koa izan dezaten bermatzea.

Gipuzkoak gazteen langabezia datuak Europako Batasunaren batezbestekotik gorakoak ditu (%15,9ko langabezia-tasa dute, Gazteen Euskal Behatokiaren datuen arabera. Europar Batasunaren batez bestekotik gora gaude (%13,8), eta zer esanik ez Europako herrialde aurreratuenekin alderatuta: Danimarkak %10,6, Alemaniak %5,7, Eurostaten datuen arabera). Horri aurre egiteko, Fellows programa indartzeko 880.000€ proposatzen ditugu (Aldundiaren 480.000€ren aurrean), eta partida berri bat sortzea proposatzen dugu, guztira beste 880.000€koa, herrialdean ikerlari lanetan dihardutenen kontratazioa bultzatu eta lan duina izan dezaten babesteko asmoz.

Industria aurreratu, jasangarri, teknologiko, sozial, berdintasunezko, erresiliente eta pertsonengan oinarritutako baten aldeko apustua egiten dugu. Enpresa eredu berritzailearen alde egiteko unea

ehbildu

dela uste dugulako, langileen parte-hartzea ardatz duena eta deserrotzeari aurre egingo diona, enpresek Gipuzkoan duten errotzea handitzeko politikak eta bitartekoak jarritz.

ZAINZA PUBLIKO KOMUNITARIO ETA DOAKORANTZ TRANTSIZIOA JARRIKO DUGU MARTXAN

Zaintzaren eremua azpikontratatu eta merkantilizatu dute, eta Diputazioaren esku dagoen egoitza bakarra (EGOGAIN), pribatizatzen ari dira.

- Azpikontratatuako zerbitzu horien gaineko kontrolik ez da egin: horren ondorioz, Aldundiarenak diren zerbitzuetan egoera larriak gertatu dira: adinekoak ordu luzez ohetik atera gabe, jan gabe, garbitu gabe (TXARA).
- Adinekoei eta euren senideei ez zaie utzi parte hartzen erabaki guneetan.
- Etxeetan zainduta dauden pertsoneri eta euren senideei ez zaie behar bezalako babesik eman, ez ekonomikoki, ez bestela. Pandemiak erakutsi du nola zaintza hori familiaren bizkar dagoen oso-osorik, emakumezkoen gain eta euren dedikazioari esker bermatu dela zaintza.
- Zaintzaileen lan baldintza prekarioak hobetzeko ez da ezer egin, ez egoitzetako lan gatazkan (gutxiengoan sinatu da azkeneko hitzarmena), eta etxeetan lanean “interna” gisa ari direnen egoera hobetzeko ere. Zaintzaileen lan baldintzak hobetzeko estrategia bat garatzeari ere ezezkoa bozkatu zieten Foru Gobernua gobernantzen duten bi alderdiek.

Gipuzkoako Aldundiak zaintzaren doakotasuneranzko ibilbidea hasteko momentua iritsi dela deritzot, besteak beste, herritarrek egun zaintza zerbitzuengatik ordaintzen duten kopurua murriztuz.

Etxean zahartu eta bizi nahi duten pertsona horientzat zaintza lanak egiteko langileak kontratatzeke egun jasotzen duten diru kopurua handituko dugu: pertsona bakoitzak zaintzailea ordu gehiagoz izateko eta langile hori lan baldintza duinetan kontratatzeke.

Horrez gain, udalekin elkarlanean, etxez etxeko zerbitzua indartuko dugu, Gipuzkoako herri guztietan zerbitzu hori egunez nahiz gauez eskaintzeko modua egiteko.

Eta eguneko zentroetan itxaron zerrendak murriztuko ditugu eta zerbitzuak zabaldu; espezialitate gehiagoko profesionalekin.

Egoitzetan, berriz, bi eratako aldaketak proposatzen ditugu: batetik, eraikinei dagokinez, makro egoitzak baztertu eta herrietan eta auzoetan integratutako egoitza edo etxebitzak sortzea proposatzen dugu. Gipuzkoa osoan. Eta bestetik, nola ez, adineko edo mendekotasuna duten pertsona bakoitzari egun ematen zaion zaintza eraldatuko dugu: bakoitzari denbora gehiago eskaintzea ahalbideratuko dugu, arreta ratioa 93 minututik 120ra igota, langileek euren lana behar bezala egiteko aukera izan dezaten, eta behar fisikoez harago, emozionalak ere lantzeko modua izan dezaten.

Egoitzetara sartzeko itxaron zerrendak murriztuko ditugu, plaza gehiago sortuz, adineko bakoitzak erresidentziara joateko premia duenean ahalik eta azkarren eta gertuko tokira eramatea bermatzeko.

Eta argi daukagu, baita ere, zaintza duintzea ezinezkoa dela zaintzaileak duindu gabe. Zaintzako langileak dira egun gizarte osoa prekarizatuenetarioak, horren adibide etxeetan interna gisa dabilzanak, edo egoitzetan iritsi ezinda aritzen direnak. Langile horien guztien lan baldintzak

ehbildu

duintzeko estrategia bat garatuko dugu sektoreko langileekin eta euren ordezkariekin elkarlanean. Besteak beste, egoitzetako langileen lan baldintza hobetzeko baliabideak jarriko ditugu; lan hitzarmenik ez dagoen sektoreetan halakoak sortzea sustatuko dugu: internen kasuan, sentsibilizazio kanpainak egiteaz gain, formazioa eta ahalduntzea sustatuko dugu, ordutegi arautuak ezartzeko neurriak hartuko ditugu, eta ikuskaritza sendotu.

Pandemia iritsi arte esan dute egungo zaintza sistema onena zela, eta gu mundu pareleloan bizi ginela. Pandemiaren ondoren eredia aldatu egin behar dela esaten hasi zarete, onartuaz oraingoak ez duela balio. Eta hasi zarete zuek ere zaintza komunitarioaz, EH Bilduk udaletan martxan jarri dituen proiektuak diruz babesten...

- Etxeetan zainduta dauden eta egon nahi dutenengan jarri duzue orain arreta. Eredu horrekin gu bat gatoz, hasieratik; baina etxeetan dauden horiei zaintza duina bermatzeko, familiei eta udalei baliabide gehiago eman behar zaizkie. Instituzio arteko akordio bat behar da eta eragile ezberdinen arteko akordio bat. Hori egitea proposatu genien EAJ eta PSEeri, sistema benetan aldatzeko ezinbestekoa delako egungo egituraketa aldatzea eta udal, diputazio eta Jaurlearitza mailako akordio bat egitea. Ezezkoa erantzun ziguten.

Etxeetan adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak dituzten familiei dirulaguntza handitzeko eskatu diegu urtero, zaintza ordu gehiagoz bermatzeko eta zaintzaileen lan baldintzak hobetzeko, aurrekontuetan. Gure proposamena izan da. Orain bi urte aurrekontuetako akordioetako puntu batean onartu ziguten, guk proposatu eta beraiek egingo zutela esan. Orain aurre kanpainan egin dute. Baina igoera txikiegia da.

Zaintzaren esparruan Gipuzkoak duen oinarria baliatu eta aitzindari izateko konpromiso argia dut. Benetan ausardiaz jokatu eta Gipuzkoak zaintzaren etorkizuneko errealitateari ikuspuntu estrategiko batetik erantzuteko, bidea abiatzeko alegia, ezinbestekoa da tamainako apustu politikoa egitea.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA HANDITZEARI BULTZADA EMANGO DIOGU, GIPUZKOAKO ENPRESA ETA HERRITARREKIN ELKARLANEAN

Gipuzkoak zaugarritasun estrategiko bat du energiaren arloan. Kontsumoaren %80aren inguru baliabide fosilak erretetik dator eta arlo honetan, jakina denez, ekoizpena zero da. Elektrizitateari dagokionez, datu kezkarriak ditugu EAE mailan, non kontsumitutako 15.232 GWh-tik (gigawatio ordu) soilik 9.375 GWh ekoitzi ziren bertan, hauetatik ia %90 EZ berriztagarriak izan zirelarik (batez ere gasa errez).

Gipuzkoan egoera are okerragoa da, ekoizpen elektrikoa bereziki eskasa delako, bai berriztagarrietan (eolikoa eta fotovoltaikoa testimonialak dira Gipuzkoan) bai iturri konbentzionalekin (kontutan hartu behar da EAEko ekoizpen instalazio nagusiak –ziklo konbinatuko gas zentralak- Bizkaian daudela). Kontsumitzen den elektrizitatearen %90 baino gehiago kanpotik dator.

Eolikoaren eztabaidan sartuak, bi zertzelada. Gauzak ez dira ari ondo egiten, PTSa onartu gabe gaude, marko orokorra jarriko duen klima-energia legea onartu gabe gaude, eta enpresen bultzadaren kapritxora gabiltza. Gure ustez, ongi planifikatu behar da guzti hau, eta klimari aurre egiteko premiak moratoriak eskatzea ez badu gomendatzen ere, argi izan behar du proiektatzen ari diren instalazioek gutxieneko batzuk bete behar dituztela: gertuko kontsumoak asetzea, energia prezio eskuragarri batzuk bermatzea, eragile anitz barnebiltzea jebegoan (herritarrak, administrazio geruza ezberdinak, bertako ehun produktiboa etab), eta proiektuekin afektatuak geratzen diren inguruabarretan esku hartze bat egitea, termino ekologikoetan (basogintzan adibidez) efektu neto positiboa izan dezaten proiektuak.

Inondik inora ezin dugu onartu gure lurraldea soilik etekin pribatuetara begira egongo diren proiektuekin betetzea. Guzti hau ongi abiatzeko deliberazio prozesuak abian jarriko ditugu, ahal den leku guztietan, gutxienez eskualde mailako hausnarketa energetikoa egiteko asmoarekin.

Proposamenak:

- Sektore publikoaren (kasu honetan diputazioaren eta honen baitan dauden organismoen) kontsumo murrizketarako plan bat osatzea.
- Diputazioak eta bere organismo guztien kontsumo elektrikoak %100 energia berriztagarriaz hornitzea: Kontratazio publikoaren esleipenen bitartez (jakin behar da ea gaur egun nola dagoen kontua).
- Transizio komunitarioko bulegoa (OTC oficina de transformación comunitaria): NEXT generation funtsen laguntza lerro bat dago hau aurrera eramateko.
- Komunitate energetikoen bultzada: Dagoeneko zerbait egiten ari da [diputazioa] esparru honetan. Gure konpromisoa... Gipuzkoako herri guztietan komunitate energetikoak sortzea izango da.
- [Aurrekoari lotuta] Komunitate energetikoen saretzea: Lehen pausoak eman komunitate horiek bigarren mailako antolakuntza batean egituratzeko. Honek ahalbidetuko luke eskualde edo herrialde mailako proiektuak bultzatzea (autosufizientzia konektatuaren eskema garatzeko).

ehbildu

- Energia merkaturatzailea sortzea (bideragarritasun azterketa batetik hasita): Agintaldi honen lehen urtean Gipuzkoa mailako energia merkaturatzaile publiko bat sortzearen bideragarritasun azterketa bat abiatuko dugu. Honen emaitzak positiboak badira, merkaturatzailea sortuko dugu, bi helburu nagusiekin. Lehena, herritar zaugarriari zerbitzu bat ematea. Bigarrena, diputazioak zuzenean sortuko duen elektrizitatea barne kontsumoetara zuzenean bideratzea.
- [Trantsizio energetikorako] Deliberazio prozesuak: Oinarria “klimaren asanbladak” izango lirake. Dagoeneko Debagoienan deliberazio prozesu honen zutoinak jartzen hasiak gara (Debagoiena 2030 prozesuaren baitan). Helburua: eskualde guztiek datorren legealdian deliberazio prozesuak abiatzea, diagnostiko energetikoa eta irtenbide energetikoak herritarrekin batera diseinatzeko helburuarekin.
- Autokontsumo industrialaren bultzada: Hobekuntza esparru handia dago sektore honetan. Diputaziotik ere (ez dira bakarrak izango) laguntza lerroak ireki edo zabalduko dira autokontsumo industrialara bultzatzeko. Neurri fiskalak areagotzea aztertuko dugu enpresek beraien auto-hornidura bultzatzeko.
- “Desfosilizazioa”: Baliabide fosilen erabilpena murriztea ezinbestekoa da klima larrialdiari aurre egiteko eta kanpo energia ez berriztagarriaren mendekotasunari aurre egiteko. Horretarako neurri sorta eraginkor bat abiatuko dugu. Besteak beste honako neurriak aurrera eramanez:
 - Jasangarritasun energetikoaren legearen aginduei jarraiki, ibilgailu publikoen ordezkapena bultzatu CO2 isuririk gabeko ibilgailuak erosiz.
 - Garraio publiko sarearen elektrifikazioa bultzatu (lurralde bus barne)
 - Gas galdaren ordezkapen baterako laguntza lerro bat abian jarri (energia berriztagarrien bidez hornitu daitezken sistemengatik aldatuz, izan bero punpak, aerotermia, biomasako galdarak etab)
- [Herrialde mailako] Trantsizio energetikorako agentziaren sorrera: Garrantzitsua da herrialde mailako agentzia baten sorrera, bere baitan beste hainbat eginkizun koordinatuko dituen (OTCa, ekoizpen egitasmoak, komunitate energetikoen koordinazioa, merkaturatzea...).

MAIZTASUNAK AREAGOTUZ, LINEA BERRIAK SORTUZ, AUTOBUSAK BERRITUZ, ETA MUGIREN ONURAK ZABALDUZ, GIPUZKOAKO GARRAIO PUBLIKOA INDARTUKO DUGU.

Lurraldebus zerbitzua emakida publikoen bidez ematen da eskualdeka. Oarsoaldea-Bidasoa, Tolosaldea, Urola Erdia, Urola Kosta, Debarrena, Debagoiena, Goierri eta Buruntzaldea dira. Hauek epe muga bat dute, eta jada aurten Oarsoaldea-Bidasoa eta Tolosaldeko emakideen berrikuntza prozesua hasi dira.

Buruntzaldea izan ezik, hurrengo legealdian berritu beharko dira gainontzekoak. Gainontzeko emakidak EH Bilduk –bere legealdian- atera zituen partaidetza prozesu baten ondoren, zerbitzua asko hobetu zen eta horren ondorioak urteak pasa ondoren ikusi dira. Erabiltzaileen kopurua asko igo da azkenengo hamarkadan (pandemia kenduta), erabiltzaile kopuru altuena 2019koa izan zela. Baina, azken bi legealdietan egon direnek Lurraldebus zerbitzuaren kalitatea saldu dute haiek sortuta izango balitz bezala.

Maiztasunak hobetu behar dira, ez murriztu. Maiztasunak murriztearen ondorioz, autobus-zerbitzuak erakargarri eta eraginkor izateari uzten dio, eta bidaiariak auto pribatura bultzatuko ditu. Horrela gertatuz gero, ikaragarritzko atzerakada suposatuko luke. Desgraziaz, hori da ikusi genuena berritzeko falta zen emakida berritzeko prozesuan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an idatzitako proiektuak murrizketa handiak izan zituen. Eta proiektu horrekin bat etorritik, 2021eko uztailaren 1ean egindako aldaketan ondoren, emakida honetako lineen erabiltzaileek ikusi zuten emakida berrian autobus-zerbitzuetan egiten dituzten murrizketak nabarmenak zirela, eta asko zirela % 20 eta % 50 artekoak, kasuan kasuko autobus-linearen arabera.

Erabiltzaileengan sortutako ezinegonaren ondorioz, hainbat udal hasi ziren kexak aurkezten Mugikortasun departamentuaren aurrean, eta honek, behartuta, hainbat hobekuntzari egin behar izan zizkion martxan jarritako zerbitzuari. Oraindik orain, hainbat lineetan ezarritako murrizketak mantentzen dutelarik. Astigarraga bihurtu dute herri kaltetuena, ez baitago beste garraio zerbitzu publikorik.

Garraio publikoak, bidaiari bakoitzeko, ibilgailu pribatuak baino 50 aldiz leku gutxiago hartzen du eta % 70 karbono dioxido gutxiago isurtzen du. Oso esanguratsua izan da 2016-2021eko epealdiaren mugikortasun inkestaren emaitzak. Non banaketa modala erreparatzen badiogu, 2016ko urtearekin konparatzen badugu garraio publikoaren (Lurraldebus, Udaleko bus zerbitzuak, ET, Renfe, ...) erabilera igo egin den, 2016ean %9,7, eta 2021ean %11,4. Baina, kontutan hartzen badugu garraio publikoaren erabilera punta 2019an izan zela, ba ez dago hainbeste ospatzeko. Are gutxiago ikusten dugunean bizikleta zein oinezkoen moduak jaitsi egin direla, eta kotxe pribatuaren erabilera nabarmen igo egin duenean, 2016ean %39,2, eta 2021ean %42,2.

Tarifen eragina kontuan ere hartu behar dugu, eta zalantzarik gabe, bere zenbatekoaren %50eko jaitsierak lagundu egin du 2019ko autobus zerbitzuak zuen erabiltzaile kopurua berreskuratzen. Gaur egungo erabiltzaile kopurua 2019koaren parekoa da.

Berritu behar diren emakida guztien zerbitzuetan hobekuntzak egiteko asmoarekin, prozesu parte hartzaileak abiatuko ditugu, kalitatezkoa eta eraginkorra den autobus zerbitzua lortze aldera.

ehbildu

Abiatu diren Oarsoaldea-bidasoako eta Tolosaldeko emakiden berritzearen prozesuak berraztertuko ditugu, benetan kalitatezkoak eta eraginkorrak izateko, behar beharrezkoak diren aldaketak egiteko asmoarekin.

Buruntzaldeko emakidaren berritzearekin batera ezarri ziren murrizketen ondorioz galdutako zerbitzu kalitatea berreskuratuko dugu. Maiztasunak eta Zerbitzu berriak zabalduz.

Lurraldebus autobus zerbitzuaren erabilera zabaldu behar da, eta horretarako MUGIren tarifen erakargarritasunarekin batera, autobus zerbitzua kalitatezkoa, eraginkorra eta azken finean erakargarria izan behar du.

MUGIren tarifen jaitsierarekin batera, eta bere onuradunen kopuruak zabaltzeko asmoz, laugarren tartearen sorrera proposatzen dugu, tarte guztiengan deskontuak handituz.

Egoera sozioekonomiko larri honetan, doakotasunerako bidea hartzea ezinbestekoa da, batez ere, egoera ekonomiko okerragoa duten kolektiboak babestea:

- 12 urtetik beherako umeentzat doakoa izango da garraio publikoa, familiak laguntzeko helburuarekin eta erronka demografikoari aurre egiteko.
- Adin horretatik gorako ikasle guztientzat zein diru sarrerak bermatzeko laguntzaileentzat eta langabetuentzat ere doakoa izatea giltzarri da, garraio publikoaren behar berezia duten kolektibo zaugarriak babestuz.
- Gainerako herritarrentzat %80ko arteko hobariak ezarriko dira garraiobide guztietarako, Mugi txartelaren erreferentzia markoa kontuan hartuta, egun dauden deskontuak handituz eta egungo egoerari doituaz. Ildo horretan, proposatzen duguna da gaur egun indarrean dauden MUGIren hiru tramoetatik laura pasatzea, egun indarrean dauden deskontuetatik abiatuta, bidaiari kopurua handitzeko helburua duten deskontu berriak aplikatuko dira.

SISTEMA JUSTU ETA PROGRESIBO BATEN BEHARRA EZINBESTEKOA DA, AURREAN DITUGUN ERRONKEI HELDU ETA ZERBITZU PUBLIKO DUIN ETA UNIBERTSALAK ZIURTATZEKO HELBURUAREKIN. GEHIEN DUTENEK, GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DUTE #TAXTHERICH

Presio fiskal baxuago du Gipuzkoak, %38,3koa, Europako herrialde aurreratuenekin alderatzen badugu (EuroZoneko batuz bestekoa %41,8koa da, eta herrialde aurreratuenetan, Danimarkan %47,6koa eta Suedian %43,7koa, Finlandian %42,3koa, Eurostaten datuen arabera).

Azken 15 urteetan PFEZaren bitartez bildutakoa %31tik %40ra igaro da, eta horrek adierazten du soldapeteko gain ari dela karga fiskala igotzen (sozietate zergatik jasotakoa %15etik %5,5era jaitsi den bitartean).

Indarrean dauden ezkutu fiskalak (urteko irabazien gainean tope fiskala ezartzen da egun eta enpresa eta sozietateetan dauzkaten akzioak salbuetsita daude) norabide horren aurka doaz.

Egun bizi dugun diru-bilketaren igoerak guztiz koiunturalak dira (nagusiki KPIaren igoerak BEZarengandik jasotako disparatu du), eta datorren egoerak ez du itxaropenerako tarte handirik uzten. Hortaz, egiturazko neurriak behar ditugu, justizia sozialaren bidean eta gehien dutenek ekarpen handiagoa eginez.

Are gehiago, azken bi urteotan Aldundiek iragarritako deflaktazioa (2023rako % 2ko deflaktazioa PFEZaren tarifari eta kenkariei aplikatuko zaie, edozein delarik ere herritarren errenta) zerga progresibitatearen aurkakoa da nabarmen.

Proposamenak:

Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko zerga berrezartzea ezinbestekoa da, gipuzkoarren %1a aberatsenari eragiten diona. Ez soilik ondarea (ondarearen gaineko zergak soilik egiten duena), baita irabazi eta enpresen partizipazio guztiak hartu behar dira kontuan (hobari berezia izango dute familia-enpresetan partizipazioak dituztenak).

PFEZren atxikipenik altuena Gipuzkoan %40koa da (seme-alabik gabeko egoeran, urtean 225.470,01€ baino gehiago irabazten dutentzat). (Nafarroan% 43koa da). Hori horrela, gure proposamena goiko hiru tramoetan 3 puntuko igoera aplikatzea:

1. 181.840,01 eta 203.240,00€ arteko tramoko kenkaria %38tik %41ra pasatzea.
2. 203.240,01 eta 225.470,00€ arteko tramoko kenkaria %39tik %42ra pasatzea.
3. 225.470,01tik gorakoa kenkaria %40tik %43ra pasatzea.

Ez da logikoa gaur egun lan-errenten eta kapital-errenten arteko dualtasun horri eustea. Adibidez, 30.000-40.000 €-ko errenta duen pertsona batek, batez besteko errenta batek, bere lanagatik, ezin du errentetatik bizi den pertsona batek halako bi edo bi baino gehiago ordaindu. Beraz, kapitalaren errenta horiek laneko errenten zerga bera ordaindu behar dute gutxienez. Azken batean, zerga gehiago ordaintzen ditugu gure lanak sortzen duenagatik, beste kapital mota batzuk sortzen dituenagatik baino.

2023ko aurrekontuetarako gure proposamen fiskala onartu izan balitz, (Ezkutu fiskalak kendu eta Gipuzkoako gizartearen gehiengoak uste duenaren haritik, herritarren %1ek, 1.000.000 eurotik

ehbildu

gorako ondarea dutenek, ekarpen handiagoa egin behar dute herritar guztion onerako), zerbitzu publiko duinak eskaini eta inbertsioak egiteko diru gehiago izango genuke. EAJk beto jarri zien gure proposamenei eta horren eraginez ez ziren aurrera atera:

- Ekonomia eta Industria alorrean, 36.780.000€ gehiago
- Zaintza alorrean 17.000.000€ gehiago
- Larrialdi klimatikoari aurre egiteko 8.000.000€ gehiago
- Udaletara eta garapen agentzien esku bitarteko gehiago eskainiz, orotara 5.000.000€ gehiago

Azken 20 urteetan, pertsona fisikoen errentaren zerga eta BEZarena gorako tendentzia nabarrian (egun Ogasunek jasotzen dutenaren % 80 inguru da) eta sozietate zerga berriz, aurkako norabidean, urtetik urtera gero eta baxuagoa (egun %7 inguruan dago).